

Euskadiren historia laburra / Brevisima historia de Euskadi

In: Askoren artean: *Euskalerrria*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1987: 13-19.

Egin diren aurkikuntza arkeologiko eta etnografikoetatik ondorioztatzen da euskal gizakia eboluzionatuz etorri dela Cro-Magnon batetik lurzoru honen gainean, duela 40.000 urte inguru hasi eta duela 7.000 urte inguru bere ezaugarri bereizgarriak lortu arte. Bi mila urte geroago ardia sartzen da, lurralde hauetakoa ez dena, eta, Adolf Staffe-k egiaztatzen duenez, berak hezitako zaldien eta behien artzantza hasten da. Egoera honek euskal gizakia aldizka lekuz aldatzera eta harreman kulturalak izatera eramaten du.

Honela, hurbilean, hots, Ebro-ko arroan eta Akitanialdean kokatzen diren giza taldeen kulturekin harremanean ikertzen denean bakarrik hartzen du bere zentzua euskal denboraldi honek.

"Lurralde honek –hala dio Jose Migel Barandiaranek– piriniar artzantzako transhumantzi eremuarekin eta, zati handi batean, euskal toponimiarekin kointziditzen du eta horrek garrantzi bereziko gertakari bat osatzen du arkeologian eta euskal linguistikan". Hizkuntza honi, euskarari alegia, dagokionez, Luis Mitxelena esaten du berori finkatua dagoela euskal herrian gutxi gorabehera 6.000 urte Kristo aurretik. Akitaniako hegoalde guztian egiten zen eta Ekialdean ere bai, Katalunia barruan (inskripzioen eta toponimiaren bidez egiaztatua dagoen bezala). K. a VI. mendetik aurrera garbitzen ditu indoeuropar kulturak ordurarte European mintzatzen ziren pre-indoeuropar hizkuntza guztiak, euskara salbu.

Egoera horretatik arazo kultural eta politiko oso determinatzaileak ondorioztatuko dira.

Rand Mc Nally-en mapa linguistikoak eta, halaber, Goetz-en *Historia Universal*-ek honela bereizten dituzte munduan mintzatutako hizkuntz taldeak: germaniarrak, eslaviarrak, zeltarrak, erromanikoak, mongoliarrak, eta albaniarrek, arabiarrek, greziarrek, lituaniarrek, letoniarrek, berberiarrek, armeniarrek, kaukasiarrek, iraniarrek eta EUSKALDUNEK hitz egiten zituztenak.

Erljioari dagokionez, gorpuak norantza begira hilobiratuta dauden ikusiz gero, esan daiteke eguzkia gurtzen zutela.

Ingurune hain mugatuak dauzkan euskal herri hau halako batean historiaren gurdian sartu zen. Herri bati gerta dakioken gaitzik handiena norberak berea ez idaztean datza, besteek idazten duten historiaren esanetara geratzen bait da horrela. Euskaldunen lehen berri historikoak aintzinako geografoek, batez ere Plinio-k eta Ptolomeo-k, ematen dizkigute. Eta Antonino-ren Ibilbidean badira izen batzu euskaldunen lurraldea, ez bakarrik Akitaniara iparraldetik, hegoaldetik Ebro-tik behera urrutiraino ere hedatzen zela aditzera ematen dutenak.

Aita Villasantek esaten duenez, euskaldunak, beren buruak "Euskaldunak" (*euskara* hitz egiten dutenak) eta beren herria "Euskalerrria", hots, euskara hitz egiten duen herria,

deitzean, ezohizko kasua gertatzen da: alegia, kultur gertakari bat, hizkuntza, dela euskal herria eratu duena eta berorri batasun-eta nazio-zentzua eman diona. Antonio Tovar-ek egiaztatu egiten du egoera hori, eta euskaldun horiek kartagotarren eta erromatarren arteko borroketatik at geratu zirela esanez esplikatzen du hori; Silio Italico-k Anibal-en soldaduen artean euskaldunak bazeudela esaten du; euskaldunek Sertorio, haiek errespetatu zituen erromatar jenerala, defenditzeko bakarrik parte hartu zuten, eta erromatarren eta euskaldunen arteko harremanak onak izan ziren: Ponpeio-k Pompaelo, Pamplona, fundatu zuen, Iruñea (euskaraz: *hiria*) izeneko herriaren gainean; hala ere, iparraldeagora oso eskasa izan zen erromatar eragina.

Hori dela medio, *euskarak bizirik irauten du*, bere eraginekin.

III. eta V. mendeetan euskaldunek Penintsula aldera jaisten ziren barbaroen inbasioei eman zien aurpegi. Sueboen germaniar tribuen kontra borrokatu ondoren visigotuei eman zien aurpegi; haiek lortu zituzten garaipen batzu euskaldunen kontura eta 581ean Victoriacum fundatu zuten oraingo Vitoria inguruan; hau, aldi berean, Santxo Jakintsuak fundatu zuen Gasteizko aintzinako herriaren gainean. Euskaldunak Pirinioetan batetik bestera zebiltzan, horixe bait zen beraien lurraldea; gero Suintila, Revescinto eta Wamba-ren kontra borrokatu ziren VII. mendean, Tarik (711) 7.000 berberiar soldadurekin gaur egun Gibraltar dan horretan lehorreratu zenean eta gotuen tropak garaitu zituenean.

Egoera honek euskaldunak libre utzi zituen gotuen nahiz musulmanen okupaziotik.

Kristautasunari dagokionez, berau seguraski III. eta IV. mendeetan sartu zen, hegoaldeetik; iparraldetik ere sartu izana posible da. Irradiazio-gune izan zitezkeen Kalagorri, Iruñea; honek badu bere apezpikua visigotuen garaian; Okan zegoen Autrigoioren apezpikua. Eta iparraldean: Eauze, Aire, Bazas, Oloron, Lescar eta Akitze. Paganismoa desagertua zen XI. mendea baino askoz lehenago: agian, Navarro Villoslada-k ongi intuitzen duenez, VIII. mendean; hala ere, pagano eta kristauen praktikek batera irauten dute, "visigotuen erresuma desagiten den arte". "Zentzugabekoa da pentsatzea –hala dio Mañarikuak, bukatzeko– kristautasuna sartzen hasi zenean erabat desagertu zela paganismoa; kristau-inskripzio batek baimentzen ez bagaitu Herria kristautua zegoela baieztatuzko, era berean inskripzio pagano batek ere ez gaitu baimentzen Herriak paganoa izanez segitzen zuela ondorioztatuzko".

Euskal Herria, artean ez bait zen batasun politiko monolitiko bat eta bai, nolabait esateko, halako era konfederal batean eratutako herri bat, Vasconiako Dukerriarekin hasten da une honetan batasun politiko bat osatzen. Dukerri hori, Ildefonso Gurrutzagak dakarrenez, Ebro-tik hasi eta, Zaragozatik barrena, Garona-ko ertzetaraino iristen da VII. mendearen hasieran. Fredegario-k, garaiko frantses kronistak, dioenez, Vasconiako lehen Dukea Genial (602) izan zen, frankoek ezarria; gero euskaldunak independizatu egin ziren eta IX. mendearen hasieran, iparraldean frankoen eta hegoaldean arabiarren kontrako borroka irekian, Iruñeko erresuma sortu zuten Estatu independente gisa Eneko Haritzaren koroapean. Erresuma honek ezaugarri bateratzaile oso nabarmena zuen, lehen errege hori Iñiguez familiako semea bait zen, Pirinioetako hegoaldean frankoen manupera jarri nahi izan ez zuena.

Iruñeko erresuma hau gero Nafarroakoa deituko da.

Lurralde hau txikiagoa da, eta bertan euskal fisonomia klasikoa gordetzen duen jendea biltzen da. Oraingo Euskal Herriaren trazadura du gutxi gorabehera.

Nafarroaren eta Gaztelako Konterriaren arteko muga ezarri zenean 1016an, gaur egun Euskal Herria dena Nafarroan sartua zegoen. Santxo VII.a Azkarrarekin bukatzen da Eneko Haritzarekin hasitako euskal monarken lerroa. Erresuma horrek lau mende iraun zuen, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia beren erresumatik egoera politiko zailetan banatu eta Gaztelakora pasatu ziren arte 1200ean paktu baten bidez.

Inkorporazio horiek Erregearekin egindako paktu pertsonalen bidez gauzatzen dira.

Nafarroari dagokionez, esan behar da Gaztelak inbaditu zuela Julio II.a Aita Santuaren, Ingalaterrako Endrike VIII.aren, Austriako Maximilianoren eta Fernando Katolikoaren partaidetzarekin. Gaztelako errege katolikoak esan zuen konkista hori (Frantziarekin) gerrak zirauno bakarrik izango zela; baina Luis XII.aren bakeak 1513an egin zituenean indarrez eutsi zion, eta zin egin zuen errespetatuko zituela haren subiranotasuna, Nafarroako Fueroak, Bizerrege baten bidez. Hau dago erregistratua Burgos-ko Gorteetan "nagusitasun bereko batasun bidez, bakoitzak (Gaztelak eta Nafarroak) bere aintzinako izaera gordez, legetan nahiz lurralde eta gobernuan".

Euskal erregioen independentzia Fueroen bidez eraenduz etorri zen.

Hauxe da Euskal Erregimen Foralaren iturria.

Akordio hau berbera da Penintsulako lau erregioetan, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta orain Nafarroan. Orobat erregio kontinentaletan Ingalaterra eta Frantziarekin. Akordio hauek sendotuz doaz bata bestearen segidan, etengabe, datozen Erregeen bidez; batasun politikoak ez zuen esan nahi erresuma bat bakarra osatzen zutenik, ezta ere euskaldunak errege horien mendean zeudenik; aitzitik, gaur egun Frantzialdea den eskualdean zuzenean *Biltzarreen* eta Estatu espainolari atxekiriko erregioetan *Batzarre Nagusien* manupeko ziren.

"Espainiako Jaun eta errege handi batzuk", dio Adrián Celaya-k, izenpetu zituzten garai hartako formulazio ohizkoekin kontrastatzen duten testu horiek eta hauen esku jarri ziren", eta Lemonauría eta Balparda aipatuz, hauxe gaineratzen du: "Bizkaiko Fueroak, berez, Giza Fueroak besterik ez dira". Eta hauek izan ziren euskaldunak bere historian zehar borrokatzera eraman dituzten Fueroak edo Libertateak edo subiranotasun edo autonomi Erregimenak.

Lehen Gerrate Karlistaren bukaeran, 1839an, beren Fueroak errespetatuak izango zireneko promesarekin errenditu zirenean, euskaldunek sinestu egin zuten hitz horretan; baina hitz hori ez zen bete, zeren Gobernuak aurkeztutako "Euskal Probintzietako eta Nafarroako Fueroak berresten dira" delako Lege-Proiektuak jarraipen engainagarria izan bait zuen: "... *konstituzio-batasunaren* kaltetan joan gabe. Gertatzen dena da ordurarte konstituzio-batasun hori ez zela izan. Hala ere, hori ez izan oztopo, 1939ko azaroaren 16ko dekretuaren bidez Euskal Herriaren botere judiziala eta legegilea ezabatuak izan zirenean, *de facto* aldarrikatua izan zedin, eta 1200az geroztik lehen aldiz historia guztian zehar, *euskal batasun juridiko eta konstituzionala*.

Euskal Herriak gerra galdu zuen eta honen ondorioz Aduana Espainiatik Hendaiara eramana izan zen 1814ean, ordurarte Miranda eta Gasteizen kokatua bait zegoen. Euskal Herriak hor egiten zuen muga Gaztelarekin.

Bigarren gerra karlista ere galdu egin zen, eta porrotarekin Fueroen Lege Abolitzaila (subiranotasunetik geratzen zen ia guztia) iritsi zen 1876ko uztaileko legearen bidez; honek ezarri zuen *lehen aldiz soldaduska Espainiako armadan egin eta kontribuzioak ordaindu beharra* Kontzertu Ekonomiko berezi baten bidez.

Fuero horien kontrako eraso horregatik, hain zuzen, hasi zen gauzatzen Sabino Arana Goirik, *Eusko Alderdi Jeltzalearen fundatzaileak, inspiratutako euskal mugimendu nazionalista*. Mugimendu honekin batera beste antzeko bat gorputz hartuz zetorren *Nafarroan Arturo Canpion eta Juan Iturralderekin*. Honela, *Espainiako Errepublika* 1931ko apirilaren 14ean etorri zenean eta Kataluniari autonomia eman zionean, Aranaren euskal nazionalismoaren kanpaina luze eta eraginkorra hasi zen, Jose Antonio Agirre buru zela: Udalen Batzarrea 1931ko ekainaren 15ean Lizarran; Estatutuari buruzko Erreferenduma udal mailan 1932an, zeinetan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia gehiago handia lortu bait zuten (245 udal euskal autonomiaren alde eta 23 kontra).

Emitza horrek eragin kaltegarriak izan zituen lau erregioen euskal elkarbizitzarako. Hau bestelakoa izan bazen, agian 1936ko gerratea ez zen izango.

Baina gauzak hala gertatu ziren 1932an, eta urtebete geroago Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Udaleen kontsulta berri bat egin zen. Eta garaipen autonomista lortu ondoren, plebiszitua bideratu zen, oraingoan herri mailan, ehuneko 82ko aldeko batezbestekoa lortuz. Eta Euskal Estatutua Batzordean zegoen eta jadanik diktaminatua altxamendu militarra sortu zenean. Honek euskaldunak bitan zatitu zituen, eta Errepublikako Gobernuak hiru erregioetarako *Euskal Autonomia* ofizialki eman zuenean, berori Gipuzkoa eta Bizkaiko lurraldeetan bakarrik aplikatu ahal izan zen; José Antonio Agirrek Gernikan zin egin zuen lehen Lehendakari gisa 1936ko urriaren 8an, eta horren *Euskal Gobernuak* berehala dekretatu zituen *ikurrinaren* ofizialtasuna eta *Euzko Gudalosteen* eta *Euskal Unibertsitatearen* sorkuntza. Nazioarteko indar ikusgarrien aurrean berebiziko borroka egin zen. Ofentsiba handia Durangoko bonbardaketarekin hasi zen 1937ko abenduaren 31n (520 hildako eta 730 zauritu honen eta apirilaren 2an izandako beste baten artean), eta egun batzu geroago, apirilaren 26an, Gernikako bonbardaketa kupidagaitz eta kriminala etorri zen; Alemaniako abazioak hor jarri zuen martxan lurra erretzeko taktika mundu mailan egindako lehen saioa, 1.654 hildako eta 889 zauriturekin; Gerrikoaren desegitea eta Bilboren okupatzea ekainaren 19an.

Euskal tropak Dueso-ko penalean errenditu eta hainbat fusilamenduren segidan etorritako *gartzelak eta kontzentrazio-esparruak* hasi zirenean, Agirre Lehendakariak bere indarrekin borrokatuz segitu zuen Katalunian 1939an –Companys Lehendakaria lagunduz– Frantziara oinez pasatu zen arte.

Hemen, Parisen, egon zen Euskal Gobernuak euskal erbestaldiko arazo handiak erabakiz; Agirre 1960an hiltzean, horren lekua Jesus Maria Leizaolak hartu zuen.

Euskal erbestaldia: Gerra hasieran 1936an, Irun eta Bidasoatik bideratutako lehen uholdearen ondoren, beste bigarren bat egon zen, garrantzitsuagoa, borroka euskal lurraldean 1937an bukatu zenean: 1) Agirrek nazio demokratikoei egindako eskari larriari esker, haurrak untziratu ziren tragediatik eta erresistentziako azken bi hilabeteetako arriskutik babesteko: honela, maiatzaren 6aren eta ekainaren 12aren artean, Bilbo jautsi eta handik zazpi egunera, itsasuntzietan jarraiko haur hauek irten ziren, aldamenean zituztela maisuak, apaizak eta asistentzi zerbitzu desberdinak: 3.301

Belgikara, 3.957 Ingalaterrara, 245 Suitzara, 1.362 URSSera, 22.234 Frantziara, 105 Danimarkara eta 6.200 Kataluniara, guztira 37.304 izanik; Santander-erako azken trenea Bilbotik ekainaren 18an irten zen, eta itsasuntzietan bertako portu honetatik 80.000 lagun untziratu ziren, gehienak zaharrak, emaztakiak eta haurrak, eta 8.000 zauritu.

Bigarren denboraldi honetan ahalegin erraldoi hau egin zen.

Hirugarrena Kataluniatik Frantziara egindakoa izan zen, eta hortik *Amerikara* Euskal Gobernuko iturri ofizialek kalkulatu dutenez, 150.000 baino gehiago izan ziren Frantziako Estatuan aterpea aurkitu zuten euskaldunak. Uholde hau izugarria da, baldin kontutan hartzen bada Estatu espainoleko lurraldeko euskal lau erregioen biztanleria ez zela 1936an 1.300.000 bizilagun baino handiagoa.

Espainiako gerratea 1929an eta Europakoa 1945ean bukatu zen epealdi horretan, bizitza politikoa Euskadin honela laburbil daiteke:

Presoen eta Pariseko Euskal Gobernuaren arteko informazio-sarea, lau euskal erregioetako 21 lagunek osatua, polizia frankistak 1940. urte-bukaeran harrapatu zuen; judizioa 1941eko uztailaren 3an egin zen, eta Auzitegi Gorenak 8 heriotz pena eskatu zituen; azken epaia hau izan zen: 30 urte haietako 6rentzat, 25 urte 7rentzat, 20 birentzat, eta bat absolbitua; guzti horietatik, eta horien artean bost emakume zeuden, Arabako *Luis Alava*-rentzat indarrean egon zen heriotz pena eta berori 1943ko maiatzaren 6an hil zuten. Mundu-gerratea piztean, Agirre Lehendakaria nazien inbasioak Belgikan harrapatu zuen eta, Alemanian gorabehera asko pasa ondoren, Suedian Brasilerako untziratu eta New York-era joatea lortu zuen, bertan 1942an bere Gobernu-zati bat elkartzan zuela. *Joseba Rezolak frankismoaren kontrako Erresistentzi zelula bat antolatzen du* Euskal Gobernuaren zerbitzura Madrilen; atxilotzen dute, baina ihes egiten dio Guardia Zibilari Bidasoatik barrena hanka eginez.

Aguirre Lehendakaria Europara itzultzen da *europar gerra 1945ean bukatzean*, alderdiarekin, EAJekin, harremanetan jartzen da, eratzen du barne-erresistentzia Frantzian ezarrita zegoenarekin batera, erdigunetzat Donostia hartuz eta Juan Ajuriagerra buru zela. *Baionako Paktua* 1945ean izenpetzen da Euskal Herriarekin zerikusia zuten "eta -Irujok esan bezala- demokraziaren alde borrokatu ziren edo borrokatzeko prest zeuden alderdi guztien artean". Izenpetzaileen artean zeuden: EAJ, ANV, Euskadiko Alderdi Komunista, UGT, Euskadi Mendigoizale Batza, Izquierda Republicana, Comité Central Socialista de Euskadi, Partido Republicano Federal, CNT eta ETA; Paktu honen arabera, *Kontsultako Euskal Kontseilua* sortzen da, helburutzat zuela hegoaldean Euskal Gobernuaren inguruan isilean ziharduten taldeak koordinatzea; geroago *Erresistentzi Batzordea* sortu zen eta beronek onartu zuen Euskal Gobernuaren ordezkari zela hegoaldean egitea Kontseilu Ordezkaritza baten bidez. PSOerekiko desberdintasunak agerikoak izan ziren une honetan 1940an sortutako ideia bat praktikan jartzean, zeinaren arabera Euskal Gobernuko alderdi guztiek nazionalitate-aitorpena egin zezatela proposatzen bait zen; Toyos Kontseilari sozialistak ez zuen aitortzen hori egin nahi izan, baina bai Santiago Aznar alderdikideak; hau arrazoi horregatik bota zuten Partido Socialista Obrero Español-etik; alderdi errepublikarrek onartu zuten euskal nazionalitatearen aitortzen hori.

Euskal Batailoiak, "Gernika" deituak, Ordoki Komandantearen gidaritzapean, alemanen kontra egin zuen borroka.

Agirrek Euskal Gobernuan bideratutako hainbat ihardueraren artean, esan behar da Kristau-Demokraziaren eta Europar Mugimenduaren antolakuntza eta garapenean garrantzi handia izan zuela; *Javier Landaburuk* partaidetza nabaria izan zuen Europako Kristau-Demokrazian, Euskal Taldeko ordezkari gisa, Agirre hiltzean Euskadiko Gobernu-Lehendakariorde gisa, 1963an oraindik sasoiko hil zen arte; une honetan *Joseba Rezolak* hartu zituen horren egitekoak. Borroka armaturako prestakuntza batzu egon ziren 1945ean; urte honetan eta hurrengoan iparramerikar irakasle batzu ibili ziren euskal talde batzu entrenatzen, hor mugan, Lino Lazkanoren gidaritzapean. Itxaropen honek iparramerikarrek beren "antifaxismoa" antikomunismoagatik" aldatu zuten arte iraun zuen. Aldaketa hau *gerra hotzaren* ondorioz etorri zen, aliatuek Sovieten Batasunarekin egina zeukaten akordioa desegin zenean. Aldaketa hau, noski, Franco-ren faboretan izan zen. 1947ko Greba Orokorra PNVk eta ELAk barruan berrerratzeko zeramatzaten ihardueren kontra zuzendutako 1945. eta 1946. urteetako zapalkuntzaren ondoren etorri zen; Bizkaian lehertzen da eta Gipuzkoara hedatzen, 60.000 langile inguru geratzen direlarik; Erresistentzi Kontseiluak mundu zabalean mezu bat zabaltzen du, kopia Nazio Batuetara bidaliz. Zapalkuntza izugarri gogorra da. Euskal sozialistek, berriki batera eramandako borroka honen ondoren, *Iberiar Konfederazioaren formula onartzen dute*: "oraindik indar gehiagorekin baieztatzen dute Euskal Gobernuarekiko beren adskripzioa eta PNVkiko beren errespetoa", eta Laureano Lasak artikulu bat argitaratzen du 1947an Euskadiko "Boletín del Centro de Estudios Socialistas"en, gogoratuz sozialistek Iberiar Konfederazioaren aldeko jarrera hartu zutela 1919ko Batzarrean, Errepublikako legalitatearen barruan. Bi hilabete geroago, irailean, "Euzkadi Socialista"k "E.G."k izenpetutako artikulu bat argitaratzen du, esplizituki esanez EAJ dela Euskal Herriko lehen alderdia, tipikoa eta biziki herritarra, gizarte-klase guztietan sustraitua dagoena; sozialisten egiteko aitzakiarik gabekoa, beraz, euskal askatasunen erregimena eta Estatu zentralaren prerrogatibak egoki bateratzen saiatzen da "... Alderdi Komunista *Euskal Gobernua utzi beharrean aurkitzen da*, Indalecio Prieto-ren kontra ekitean, Errepublikako Gobernuarekin hausten bait du erakundeak 1947an. Komunistek I. Prietori leporatzen diote amerikarren aldeko jarrera erakutsi duela Atlantikoko Paktuan eta monarkikoekin izandako elkarrizketetan, Franco-ren lekuan Don Juan de Borbón jartzea posibletzat ikusiz. 1951ean greba bat egon zen eta horretan 250.000 langile geratu ziren ordenatuki; zapalkuntza "basatia" izan zen, euskal erakundeak desegitea lortu zuen. Eta iparramerikarrek Franco-ren kontra ezarritako indar demokratikoen blokeo teorikoa hautsi zuten, hari 62,5 milioi dolarreko kreditua emanaz Espainian baseak ezartzearen truke.

ETA 1959ko udan sortzen da EKIN eta EGn oinarrituz. Agirre Lehendakaria 1960an hiltzen denean, horko partaide batzu haren hileta-mezan eta gorpu-eramatean izan ziren. Lehendakari berria ere, Leizaola, aiputan dauka (*Zutik*, 12 zk., Caracas); "ETAk, nahiz eta beronek PNVrekin hautsi, badu alderdi abertzale handiaren baitara itzuliko den esperantzarik" (*Zutik*, apirila 1961, aparteko zenbakia); trena errailetatik ateratze-ekintza hutsegina gertatzen da eta, horrekin batera, bigarren aroa hasten da (*Zutik*, Baiona, azaroak 20). I. Biltzarrea 1961eko uda-bukaeran hasten da prestatzen,

artean barruan lau militante besterik ez zeuzkanean; II. Biltzarrea Landetan egiten da, Baionako Iparraldean, 1963an. III. eta IV. Biltzarreak: ETAREN historian erakundearen erorketak gertatzen direnean ematen dira urratsak, erorketa horietako bakoitzak Biltzarre berri bat egin beharra bait dakar eta batzuetan, haustura-kasuan bezala, bi ere bai. *Kemen* sortzen da barne-Buletin gisa, eta urriko zenbakiak ("Evolución ideológica de ETA") dio: "mugimendu abertzale akonfesional" gisa definitzetik "nazionalismoa ezin izan daiteke aberri-borrokaren oinarri bakarre" gisa definitzera pasatzen da, eta "euskal burgeseriaren eta Franco-ren erregimenaren eta atzerri-zapalkuntzaren arteko ezkontza salatzen da", "ETA errealitatearekin harremanetan jarriz eta zapalduen kausarekin inolako erreserbarik gabe identifikatuz bakarrik armatzen da. Ez da ezer gehiago behar Euzkadiren askapen nazional eta herritarraren aldeko borrokan"; eta harez gero gero eta enfasi handiagoa nabari da kontzeptu marxistetan. "Erakundeari eusteko beharrezkoak diren 'errekisak' egin beharraz" hitz egiten hasten da (*Zutik* 32, abuztua 1965); Nafarroako "Iratxe" eta ETA elkartzen dira, "erabat bat datoze-lako"; 1966ko Aberri-Eguna Hendaiako zubietan ospatzen da "Gasteizen egiten duen PNVren bokazio folklorikoarekin konpromisu-mota oro hausteko"; ETAREN Talde Autonomoa: honek 1966-1968 urteetan funtzionatzen du "El Cabra" k zuzenduta.

ETAko lehen hildakoa Tolosa inguruan gertatzen da: Txabi Etxebarrietak Guardia Zibilaren kontra egiten du tiroa errepideko kontrol batean eta Pardines agentea hiltzen, eta bera ere bai; 1968ko ekainaren 7a da; eta hurrengo abuztuaren 2an ETAK Irunen Melitón Manzanos polizi inspektorea hiltzen du. Jadanik hil arteko borroka atzerazina da. 1970ean Burgos-ko Epaia gertatzen da: TOPEK Bizkaiko PSOeko 13 lagun juzgatzen ditu, horien artean Rubial, gerratea bukatuz geroztik urte asko gartzelan egona; Joseba Elosegik bere burua sutan botatzen du Caudillo-aren aurrean Donostian, oraindik tiraniak errez segitzen duen Gernikako suagatik protestatzeko; Madrilen pena sendoekin kondenatzen dira euskal bost militante: Sabino Arana, Frantzisko Xabier Bareño, Ramon Iruzalde, Frantzisko Eskubi eta Eusebio Iriarte, azaroan. Baina batez ere: 1) abuztuaren 31n ETAko VI. Biltzarrea hasten da; 2) Beihl aleman kontsula bahitzen dute Donostian, eta. 3) *Burgos-en Gerra-Kontseilu Sumarisimoa* ematen da.

Burgos-ko Gerra-Kontseilua: Euskaldunentzat, edozein alderditakorentzat 1970. urtea *Burgos-ko* urtea izan da.

16 euskaldunen kontrako prozesuak oihartzun handia izan zuen mundu guztian, eta laster Frankismoari egindako judizioa izatetik totalitarismo faxistari egindako judizioa izatera pasatu zen; emaitza honetan parte hartu zuten herriak bere mobilizazioekin, munduko prentsak, herrialde guztietako erakunde demokratikoek, eta herbestean zeuden euskal erakundeek, Euskal Gobernuak nahiz PNVko gizon oinarrizkoek: Irujok, nazioarteko harremanetan, eta Leizaolak eta Jose Rezolak Erromara egindako beren bidaien bidez: harremanak gobernu demokrata-kristauarekin, eta honetan babestuta Vatikanorekin hitz egin zuten eta arazoa planteatu: Judizioa atek itxita egin beharrekoa zen, Konkordatoaren arabera, prozesatuen artean apaizak zeudelako; ate hura ireki zezakeen bakarra Eliza zen. Atea ireki zen; sekula ez da jakingo gestio hori izan zen ala ez erabakiorra, baina egindako gestioa hor zegoen eta atea ireki egin zen; hau izan zen gakoa, zeren, atek irekiz gero, nazioarteko periodistak sartu

ziren eta mundu guztiak izan zuen judizioaren eta beronen egoeren berri. Heriotz penak eman ziren, baina hurrengo egunean eman ziren indultuak.

Euskal presoak 1971ko abenduaren 31n 110 ziren.

1972ko Aberri-Eguna batera egin zen Baionan. Urte honetan ETA indarberritzen da "Egi-Batasuna" rekin; Iñaki Mugika Arregi, "Ezkerra", horko figura nagusia izan zen.

Carrero Blanco 1973ko abenduan hiltzen da ETA-V.aren atentatuaren bitartez. 1975ean Salbuespen-Egoera dekretatzen da Gipuzkoa eta Bizkairako (apirilean), Lege Anti-Terrorista dekretatzen da (abuztuan), torturarik gogorrenak hasten dira: eman zioten tratu basagatik, Eustasio Erkizia apaiza izan zen jendearen arretoa gehien piztu zuen biktimetako bat. Añoberos Jauna, Bilboko Apezpikua, atxilotzean, *euskal Elizaren kontrako bortxakeria egiten da; Garmendia eta Otaegi eta Juan Paredes Manot-entzat, "Txiki"rentzat, heriotz penak eskatzean, nazioarteko eskandalua lehertzen da eta garrantzi handiko grebak egiten dira; azkenean "Txiki", Otaegi eta Frap-eko hiru partaide exekutatuak dituzte.*

Eta honela, berriro, ekintza/zapalkuntzaren eskalada-fase berri bat irekitzen da, Franco-ren heriotzak zeharkatzen duena 1975eko azaroaren 20an.

Franco hiltzean, ETako adar batek bakarrik, politiko-militarrak, 500 partaide eta lagunkide dauzka gartzelatuak. Bestalde, KAS sortzen da. *Bahiketa-ekintzek* aurrera segitzen dute. ETaren VII. Biltzarrea egiten da 1976ko irailean, eta Gobernuaren eta ETApn-en arteko lehen harremana ematen da, eta ETAm-ak behatzaile ofizial bat dauka; treguak lau hilabete irautes du, Itxasoko heriotzak (1977ko martxoaren 7an) eta bi guardia zibilen metrailaketa Arrasaten (martxoaren 13an) arte; baina tregua luzatu egiten da maiatzaren 24a arte, hauteskunde-kanpainaren hasieran. Bienbitartean, EAJ/PNVk bere lehen mitina egiten du Donostiako Anoetako frontoian, eta urtarrilaren 19an legeztatzen da ikurriña; *bigarren amnistia* lortzen da: apirilaren hasieran ETako presorik garrantzitsuenak irteten dira, baina guztien askatasuna eskatzen da.

Maiatzaren 20an Gobernu zentralak *Amnistia orokorraren* dekretua izenpetzen du.

Lehen hauteskunde orokor demokratikoak 1977ko ekainaren 15ean ospatzen dira, Euskadiko mapa politikora begira lehen hurbilketa egiteko. Nafarroa ezin da sartu lehen Euskal Kontseilu Orokorreko konstituzioan, bere lehen bileran Juan Ajuriagerrak presiditu zuena eta gero Ramón Rubial Caviá-k. Konstituzio Espainolerako Erreferenduma 1978ko abenduaren 6an egiten da, Euskal Herriaren abstentzioarekin edo gehiengoaren "ezezko"-arekin. Gernikako Estatutua: Proiektua Donostian onartu zen 1978ko abenduaren 24ean, eta azkenean abenduaren 29an formalki onartu Gernikako Juntetxean. *Legegintzarako hauteskundeak* (1979ko martxoaren 1ean) eta *udaletakoak* (apirilaren 3an) eginda gero, *honela eratua geratzen da Euskal Herriko Batzarre berria:*

PNV	16 diputatu
UCD	7 diputatu
PSOE	6 diputatu
EE	1 diputatu

HB (4) joaten ez denez gero, EAJ/PNVk bereganatzen du gehiengo handia.

Garaikoetxeak hartzen du bere gain Kontseilu Orokor berriaren Lehendakaritza 1979ko ekainaren 16an, eta Kontseilaritza-aldaketak ematen dira. Euskal Herriko Autonomi Estatuta onartzeko Erreferenduma 1979ko urriaren 25ean egiten da; Garaikoetxeak Leizaola hartzen du Santimamiñen abenduaren 15ean, eta *Euskal Parlamenturako hauteskundeak 1980ko martxoaren 9an egiten dira*:

PNV	207.400 botu,	% 40
HB	85.000 botu,	% 16
PSOE.....	74.700 botu,	% 14
EE	40.300 botu,	% 8
UCD.....	34.700 botu,	% 8
AP.....	29.900 botu,	% 6
PCE	24.900 botu,	% 5
EMK.....	5.700 botu,	% 1

Honela geratzen da ezarria (eta hauxe da Euskadiko historia labur-labur honen helburua) Euskal Herriaren demokrazia garaiko mapa politiko berria (Nafarroa at), Karlos Garaikoetxearen lehendakaritzapean.

Berrespen-egintza Leizaola Lehendakaria bertan zela egin zen 1980ko apirilaren 9an, Gernikako Haritzapean, tradizioak eta eskubide demokratikoak nahi bezala; Euskadiko lehen Lehendakariak gerrateko une arras zailtan leku berean egindako zin berbera egin zuen Garaikoetxeak; lau egun geroago, Estatu espainoleko buruzagiak, Juan Carlos I. Erregeak eta Gobernu-buruzagiak, Felipe González jaunak, izendapen hori Errege-Dekretu bidez berresten dute, eta hamabost egun geroago, apirilaren 24ean, Garaikoetxea Lehendakariak hamalau dekretuak izenpetzen ditu bere lehen gobernuia izendatuz:

Lehendakari: Karlos Garaikoetxea Urriza jauna.

Lehendakaritzako Kontseilari-Idazkari: Javier Caño Moreno jauna.

Hezkuntzako Kontseilari: Pedro Migel Etxenike Landiribar jauna.

Kulturako Kontseilari: Ramon Labaien Sansinenea.

Justiziako Kontseilari: Carmelo Renobales Vivanco.

Barne-Kontseilari: Luis Maria Retolaza Ibarguengoitia.

Ekonomia eta Haziendako Kontseilari: Pedro Luis Uriarte Santamarina jauna.

Lan-Kontseilari: Mario Fernández Pélaz jauna.

Industri Kontseilari: Javier García Egotxeaga jauna.

Garraio, Komunikazio eta Itsas Arazoetarako Kontseilari: José Luis Robles Canibe.

Lurralde-Politika eta Herri-Lanetarako Kontseilari: Javier Lasagabaster Etxarri jauna.

Merkataritzako Kontseilari: Carlos Blasco de Imaz jauna.

Osasun eta Gizarte-Segurantzako Kontseilari: Jesús Javier Agirre Bilbao jauna.

Nekazaritzako Kontseilari: Félix Ormazabal Askasibar jauna.

Kargu-hartzea 1980ko apirilaren 29an egin zen Bizkaiko Foru-Diputazioan.

De los hallazgos arqueológicos y etnográficos se desprende que *el hombre vasco* ha venido evolucionando de un Cro-Magnon sobre este suelo desde hace unos cuarenta mil años, hasta adquirir sus rasgos distintivos hace unos siete mil. Dos mil años después introduce la oveja, que no era de estas tierras, y comienza el pastoreo de caballos y vacunos domesticados por él, según lo demuestra Adolf Stafe, circunstancia que lo mueve a los desplazamientos periódicos y los contactos culturales.

Así, este tiempo vasco sólo tiene sentido cuando es estudiado en relación a las culturas de los grupos humanos próximos, en la cuenca del Ebro y en la zona aquitánica.

«Territorio –dice don José Miguel de Barandiarán– cuya coincidencia con el área de trashumancia pastoril pirenaica, y, en gran parte, con la toponimia vascoide, constituye un hecho de particular importancia en la arqueología y en la lingüística vasca». En cuanto a esta lengua, *el euskara*, Luis Michelena dice que está fijada en el pueblo vasco desde más o menos seis mil años antes de Cristo. Estaba extendida en todo el sur de Aquitania y hacia el este, dentro de Cataluña (probado por inscripciones y toponimia). Es a partir del siglo VI a. C. cuando la cultura indoeuropea barre todas las lenguas preindoeuropeas que se hablaban hasta entonces en Europa, excepto la vasca.

De ésta circunstancia se derivarán problemas culturales y políticos muy determinantes.

El mapa lingüístico de Rand Mc Nally y también la *Historia Universal* de Goetz distinguen así los grupos de lenguas habladas en el mundo: germánicas, eslavas, celtas, románicas, mongoles, y las que hablan los albanos, árabes, griegos, lituanos, letones, bereberes, armenios, caucásicos, iranios y VASCOS.

En cuanto a lo religioso, la dirección en que están orientados los cadáveres hace pensar en una veneración o un culto al sol.

